

## ZIRRIBORROA

### 2024KO URTARRILAREN 8KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko urtarrilaren 8an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Bilkurari hasiera eman aurretik, Tokiko Gobernu Batzordeak, gai zerrendan ez da goen hurrengo gaia jorratzea erabaki du: "Zubizkitza auzoko 1. fasearen berrurbanizazio obraren kontratuaren aldaketaren espedientearen hasiera".

#### I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko abenduaren 18an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

#### II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 106 zenbakidun fakturen zerrenda, EHUN ETA HOGEITA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMASEI euro ETA BERROGEITA LAU zentimokoa (135.636,44 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

#### III.- GOIEKI S.A.-RI 2024KO EKARPENAK.-

Goierriko Garapen Agentzia S.A.k (GOIEKI) bere partaideak diren Udalek 2024rako egin beharreko ekarpenak planteatu ditu.

Ekarpenak udal bakoitzak dituen biztanleen arabera dira eta Lazkaori honako ekarpenak dagozkio:

- Ekarpen orokorra	58.307,55 €.
- Gizarte arloko ekarpena	9.010,50 €.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, GOIEK Iri 2024ko ekarpen hauek onartu egin ditu aho batez.

#### IV.- LAZKAOKO BENEDITARREN FUNDAZIOARI 2024. URTEKO DIRU EKARPENA.-

Alkateak egindako proposamenaren bidez Lazkaoko Beneditarren Fundazioari honako ekarpena egitea planteatu da:

- Lazkaoko Udalaren 2024. urteko aurrekontuan aurreikusitako diru partidatik, 22.000 €-ko ekarpena egitea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, Beneditarren Fundazioari proposatutako ekarpena egitea onartu egin du aho batez.

#### V.- GOIMEN ELKARTEARI 2024KO EKARPENA

GOIMEN Elkarteak horretarako bidalitako idatzi bidez, 2024ko Udal ekarpenaren eskaera egin du.

Idatzi horretan esaten du GOIMEN Elkarteko Gobernu Batzordeak, 2023ko apirilaren 25ean egindako bileran, 2024 urteko udal kuota proposamena onartu zela.

Hori horrela Lazkaoko Udalari dagokion ekarpenaren zenbatekoa 8.702,64 €-koa da.

Honen aurrean, tokiko gobernu batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, GOIMENi 2024ko Udal ekarpen hau egitea onartu du.

#### VI.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Gerriko S.L. Liburudendari.-

Abenduaren 11tik 17ra egindako XXXV. Gabonetako euskal liburu eta disko kanpainaren barruan saldutako kopuruaren % 15eko ordainketa egitea. Saldutako kopurua 12.837,76 € izanik, ordaindu beharrekoa 1.925,66 € dira.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2023ko aurrekontuaren 1 481.03.335.00 partidatik.

## VII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

### - Gerriko Kultur Elkarteari.-

Gerriko Ikerlan Bekaren 2023ko ekainetik abendura bitarteko gastuei aurre egiteko, dagokion bigarren ordainketa egitea 2.500 €koa.

Dirulaguntza hau aurrekontuaren 1 481.04.334.00 partidatik ordainduko da.

### - Antzar konpartsa, Lazkaoko erraldoi eta buruhandi elkarte taldea.-

Talde honek eta Udalak izenpetu duten hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, aurreikusi zen 5.000 €-ko dirulaguntzaren %60, hau da, 3.000 € ematea.

Diru laguntza 2024ko aurrekontuaren 481.10.334.00 partidatik ordainduko da.

### - Bakuntza Elkarteari.-

Bakuntza Elkarteari bultzada bat emateko eta bere ibilbideari jarraipena emateko, 1.000 €-ko dirulaguntza ematea.

Dirulaguntza hau aurrekontuaren 1 481.01.231.60 partidatik ordainduko da.

### - Zagupe Astialdi taldeari.-

Talde honek eta Udalak izenpetu duten hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, aurreikusi zen 5.000 €-ko dirulaguntzaren %60, hau da, 3.000 € ematea.

Diru laguntza 2024ko aurrekontuaren 481.05.335.00 partidatik ordainduko da.

### - Lazkaoko Musika Bandari.-

Lazkaoko Musika Bandak eta Udalak izenpetu duten hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, aurreikusi zen 5.000 €-ko dirulaguntzaren %60, hau da, 3.000 € ematea.

Diru laguntza 2024ko aurrekontuaren 481.07.334.00 partidatik ordainduko da.

### - Jundajo Txaranga Taldeari.-

2024rako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da, 3.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2024ko aurrekontuaren 1 481.02.334.00 2024 partidatik egingo da.

- Kantaka Abesbatzari.-

2024rako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da, 3.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2024ko aurrekontuaren 1 481.05.334.00 2024 partidatik egingo da.

- Oin Arin Dantza Taldeari.-

2024rako aurreikusitako dirulaguntzaren % 60, hau da 9.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2024ko aurrekontuaren 1 481.01.334.00 2024 partidatik egingo da.

- Suthai Taldeari.-

2023rako aurreikusitako dirulaguntzaren % 40, hau da 2.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 1 481.06.334.00 2023 partidatik egingo da.

VIII.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

- Lazkao Txiki Musika Eskola.-

2024. urterako aurreikusitako dirulaguntzaren erdia, hau da, 35.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2024ko 1 481.02.326.00 partidatik egingo da.

IX.- OSASUN ARLOKO LAGUNTZA

Alkatetzatik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru-laguntza hau onartu du:

- Lau Katu Lazkao - Katuen babeserako elkarte.-

Bere jarduera babestu eta diruz laguntzeko, 2023ko aurrekontuan aurreikusitako 3.000 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 481.01.311.00 partidatik egingo da.

## X.- ZUBIZKITZA AUZOKO 1. FASEAREN BERRURBANIZAZIO OBRAREN KONTRATUAREN ALDAKETAREN ESPEDIENTEAREN HASIERA.-

Zubizkitza auzoko 1. fasearen berrurbanizazio obra burutzen ari den Sasoi Eraikuntzak S.L. enpresak kontratua aldatzeko beharra adierazi dio kontratazio organoari.

Zubizkitza auzoko 1. fasearen berrurbanizazio obra burutzeko lanen esleipena 2023ko maiatzaren 8ko Tokiko Gobernu Batzordean erabaki zen eta lan hauek Sasoi Eraikuntzak S.L.-ri esleitu zitzaizkion ehun eta laurogeita hamabi mila hirurehun eta zazpi euro eta bederatzi zentimo (192.307,09 €) gehi BEZari dagokion berrogei mila hirurehun eta laurogeita lau euro eta berrogeita bederatzi zentimoko (40.384,49 €) prezioan.

Kontratua 2023ko uztailaren 13an formalizatu zen, eta zuinketa egiaztatzeko akta 2023ko irailaren 19an egin zen, kontratista ados zegoelarik.

Obra zuzendaritza Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak eta Soroa Arquitectos estudioko Pedro Izaskun arkitektoak daramate.

Sasoi Eraikuntzak S.L.-k, 2023ko abenduaren 7an Lazkaoko Udalaren egoitza elektronikoan sarrera eman dion idatzi baten bitartez jakinarazi du, eguraldi txarra dela eta ezin izan dituztela hainbat lan egin epe barruan, eta horien artean hormigoi inprimatzeko zoladura nabarmentzen da. Hau dela eta, obra amaitzeko epea 2024ko abenduaren 31 arte luzatzeko eskaera luzatu du.

Behatutako zirkunstantzien eta ezaugarrien errealitatea ikusita, Udal arkitekto teknikoak txosten bat egikaritu du. Bertan adierazi du Sasoi eraikuntzak S.L.-ren lanen programaren arabera, zolaketa lanak 4. astean hasi zirela, beraz urriaren 10etik aurrera. Euskalmeteko Agauntza estazioko datuak deskargatuta bertan ikus daitekeela urriaren 10etik abenduaren 7 arte 57 egunetatik 32 egunetan egin duela euria (>1 l/ 24h). Beraz honek esan nahi duela hormigoi inprimatua egun horietan ezin izan dela jarri.

Honez gain, txosten honetan Udal teknikariak dioenez, kontratua aldatzeko beharra lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren gorabeheretatik etorri da, eta beraz kontratuaren luzapena onartzea proposatzen du.

Obra egikaritzeko epea luzatzeak ez du kontratuaren prezioa aldatuko.

Aipatutako inguruabarren ondorioz, obra-kontratuaren aldaketa beharrezkoa jotzen da.

Kontratua aldatzeko beharra kontratua lizitatu zen unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortutako inguruabarrek eragindakoa da, eta kontratua aldatu ahal izateko bete behar diren baldintza hauek betetzen direla esan dezakegu:

- 1.- Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezin izan dituen inguruabarretatik dator aldatzeko beharra.
- 2.- Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez du aldatzen.

3.- Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gainditzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikuluko honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, Zubizkitza auzoko 1. fasearen berrurbanizazio obraren kontratuaren aldaketa espedienteari hasiera ematea onartu du.

#### XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

#### XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.